

MAISU BILLA

JOSHE ELIZONDO-RI

LAGUN ZAR ELIZONDO:

OSASUN maitagarriyaren laguntza atsegintsuaren gai guztiyak edo-
rrekin dauzkakela arki aizela zeritzot, luma sakar au eskuan ar-
tzen detan garayan, ala, nola ni ere gaur dan egunean, gauz estimaga-
rri orren jabe naizen gisan.

Orain, datozen errenkadetan esan bear diat ezik, irakurriyak gelditu
dirala igandik niganuntz, izkribaturik donkidatu dizkiraken arrazoi ba-
tzuek, albistari antziñako EUSKAL-ERRIA-ren orri bitartietan.

Oetan esaten dirak, joan dan urteko Agorrille-ko peri egunetan
izandu intzala *Fueruen* ibildegiko echol ayek ikusmentzen, eta an ikus-
tera gertatu intzala, gizon bat, abotik belar zirindara luze bat zeriyo-
la beste elikagarririk etzeukalako; bada edorrek ongi dakiken bezela, ai-
patzen dekan gizon ori besteren teinkaraz belar ura atera ondoren ba-
rrundik utza gelditu ukan gisan, gelditu nindukan ni ere *Charauzko*
mendiyetan, urre billa bestetara joan ta buztiñik ere gabe, besteren
teinkararen geyegitzez.

Gauz onek etzirak batere biyotzik minberatu, zergatik edozeñek
ondo zekik nere buruzko egipen ezerezak, ez litezkiela irichi *meatz* zu-
luetan urrutira, ta orrengatik nebillek aspalditik maisu on baten billa
zerbait jakitera irichi nadiñ berandu bedeik; bada neri oraiñ gogoratu
zaidaken bezela, len oarkera chiki bat izatera irichi bazitzaidaken, ez
nindukan gaur arkiko, arki naizen beziñ buru motel eta asto.

Jakiñan gañian niok, nik lumari eragiñazitzen zizkiotan arraskara
borondatezkuak ez dirala borondate mugatik malla erdi batez gora
igotzen.

Bañan, ¿zer egingo diat, nere erriko zapiolak ezpazizkiratek euntegitatik gai geyago ematen? ¿Nere gain alziok bada puška chiki batekin soñeko aundi bat egitia, batez ere jostuna ezpanak?

Eginkisun au ire eskuen mende usten diat, bada ondo zekiat nik eziñ detanari epai ona emango diyokala; ta arrazoi onegatik bakarrik egiñgo dizkiat galdeera berri, bururatu zaizkitan batzuek, baldiñ ta ezpazaik iruditzen azpergarri nagola nere galdeakiñ.

Oraindik egun asko ez dala, irakurri dizkiat ingi muñur batian, erezi moldaera batzuek, ustez maisutzat ezagutzen diran ayetako baten izenpean agertzen diranak, eta esaten diat egiya; oyek ondo egiñak diralako iritziya ematen badirak, onez aurrera ez detala nere bururik berotuko geyegizko nekez.

Farra lasai egiteko gogua eman zirak ondorengo onla diyon onek:

«Gutziz ona da nere iritzi
obiditzea,
gero nai bada izan jaunaren
mesedea,
eta gauz ontaz biyotz gaisua
kontentatzea.»

¿Ez al deritzok Elizondo, beste orain dala berrogei urte, Brecha-n erosi ta ikasi nuben bertso zarpatzu, orain kantatuaz izkribatuko detan au bere charrian obesiagua dala? Ia zer deritzokan?:

«Izeba sayatu da
buruba *kantatzan*,
ezkontzeko *pareja*
ederra *juntatzen*
iñon tachik zutenik
etzuben *pentzatzen*,
orain penetan dago
negarrez urtutzen.

»Izebak egin diyo
ezkontz egokiya,
andregai ortz gabia
beltza ta itzuziya;
gañera *orgullosa*
aren *pantaziya*,
ona daukala ustez
bere *presentziya*.»

¡Au *bazkuentze* pilla, Elizondo! Bañan alaz guztiyaz ere, obetošiago sartzen dituk belarriko chulotik, lenengo ipiñi detan erezi edo aza zortzen, maisutzat bere buruba ezagutzen duben orrena baño. ¡Au bai dala au, *onradamentian* ta euskara *klaruan*, *bazkuentzez ablatzeko manera*; eta au bai dala, gauza guchiz *kontentatzea*.

Egiya esaten diat, lagun zarra, algaraz ler egiñik lurrian etzanda egona nak gaur bazkal ondoan erezi irudiko errenkada batzuek irakurri ditutanean; nik uste nikan nere illoba Luis Ayestaran donostiar sendakiñari deitu bearko niyola, ta alakorik gertatu balitz, bazekiat ondo esango zubela: osaba, *koliko miserere* daukazu ta labanaz idiki bear zaitut eztietatik ondo azka zaitezen.

Bañan, nik erantzungo niokan: ez illoba, ez, ez dizut utziko orlakorik egiten; bada oraiñ garizuma nola datorkigun, elizetan ere gauza berri zale izaten dira, bai, ta errez salduko det ostiral arratsaldetan sermoi ondoren kantatzeko.

¿Ez alderitzok ondo erantzuna izango zala? Oraiñ esan bear dirakia zer diritzokan beste onela diyon au:

«Jardiñetan badago
zenbait lore klase,
nere barrena usaiz
diratenak bete.»

Arrapazak ori, Elizondo, tenaza gorituakiñ; ja, ja, ja, ja. Ez *Zor-illak* eta ez *Zor-Piñtuak* lezatekek egiñ orlako aza zortzen farragarririk.

Ta gero, ¿maisuaak dirala esango ditek? Berak ala ziotek, eta chiniñtu egiñ bearko.

Gauzik onena dek *kontentatzea*.

JUAN IGNACIO URANGA

